

Lau euskal talderen estreinaldiak Zarauzko Kalerkin

Bertako ekoizpenak pisu nagusia izango du aurtengo ekitaldian

Jon Eskisabel / Donostia

Berria eta ugaria. Euskal Herriko kale antzerkiaren dinamismoaren erakusleho izango da Zarauzko Kalerki jaialdia. Lau talderen obra berrien estreinaldiak izango dira uztailaren 13tik 15era egingo den zazpigarren ekitaldian: Hortzmugaren *Badum mundua*, Hankagorriren *Petrikiloak*, Deabru Beltzaren *Bikiak* eta Trapu Zaharren *Paketitoa*.

NAZIOARTEKO eskaintza Kataluniako Senza Tempo eta Gog i Magog eta Frantziako La Salamandrako taldeek osatu dute

Hamabi emanaldietatik zortzi euskal talderenak izango dira. Euskal konpainien presentziaren areagotzea berez gertatu da Zarauzko Kalerkin. Ekoizpenak horretarako aukera eman du. Hamahiru lan berri prestatu dituzte kale antzerkiko taldeek aurtengo denboraldirako, eta Zarautzek horietako lau aurkeztuko ditu.

Hortzmugak *Badum Mundua* aurkeztuko du uztailaren 13an —estreinaldi ofiziala hurrengo egunean Donostian egingo badu ere—, Hankagorrik *Petrikiloak*, Deabru Beltzakek *Bikiak* eta Trapu Zaharrak *Paketitoa* euskarazko bertsioan. Hortzmuga, Deabru Beltzak eta Trapu Zaharra iaz ere izan ziren Zarautzen. Trapu Zaharraren kasuan, «herriko jendeak eskatzen digu ekartzeko, arrakasta itzela izaten baitu. Uste dut Kalerki guztietan izan dela», azaldu digu Arbil Aranburu Alproja kultur taldeko ki-deak.

Matxin (*Yo soy yo mismo*), Txan Magoa, Goloka (*Goloka Park*) eta Ten Pinpilinpauza (*Sekula guztiarako bideak*) taldeek osatuko dute euskal taldeen eskaintza.

Gauak kanpokoan esku

Euskal taldeen ugaritzeak ekarri du nazioarteko konpainien presentzia urritzea. Hiru talde besterik ez dira izango, baina haien esku izango dira gauetako emanaldi nagusiak. Saio horiek bereziki zaintzen saiatzen dira antolatzaileak, «ikusgarritasunaren aldetik muntaia indartsuak ekarri», dio Aranburuk. Kataluniako Senza Tempok *Capricho* eta

Lazurd aurkeztuko ditu. Dantza, argia eta ura uztartzen dituen trilogia baten obrak dira biak. Ikusgarritasunaren aldetik *Lazurd* azpimarratu du Aranburuk, «bal-dintza tekniko ugari eskatzen dituen ikuskizuna da, piszina handi bat urez bete behar baitute».

Lehen eguneko azken saioa Frantziako La Salamandre eskainiko du. *Le feu* ikuskizuna suaren inguruan eratu-ta dago, izenburuak azaltzen duenez. Jaialdia ixteko, Kataluniako Gog i Magog-ren *Bosc Magic* ikuskizuna aukeratu du Alproja taldeak. «Denbora asko generaman haren atzetik, iaz ezin izan genuen ekarri eta aurtengo lortu dugu».



EGUNKARIA

Kataluniako Gog i Magog taldearen *Bosc magic* ikuskizunak itxiko du jaialdia.

ARBIL ARANBURU (ALPROJA KULTUR TALDEA)

«Kalerkik bere plaza egin du jada kale antzerkiko jaialdien artean. Bere publikoa du. Aurtengo kalitateari eusten eta ikuskizun erakargarriak ekartzen saiatu gara»

Azken batean, «kalitateari eusten eta ikuskizun erakargarriak ekartzen saiatu gara», dio Aranburuk. 5-6 milioi pezetako aurrekontua izango du Kalerkik.

Aurtengo, Lekeitioko eta Donostiako jaialdiekin lehian beharko du asteburu bere-

an. Horrek ez du kezkatzen Aranburu. «Guk uztailako bigarren asteburuan egiteko ohitura dugu. Donostiakoa hasi da aurtengo uztailan egiten. Batak besteari jaten ote dion? Zalantzak ditut. Bakoitzak bere publikoa du, eta Kalerkik jada egin du bere

plaza. Arriskua badago, batez ere euskal taldeak kontratatzeak. Aurtengo izan ditugu arazotxo batzuk Donostiakoarekin. Baina kanpoko taldeak ekartzeko, abantaila izan daiteke, errazago amortizatzeko baitute bidaia».

Aurreko urteetan bezala, Foruen plaza, Musika plaza, Malekoia eta Munoa jendez gainezka izango dira uztailako egun horietan. «Herriak bere egin du jaialdia, eta kanpotarrek ere bai. Jendearen erantzuna izugarria izaten da, eta urtetik urtera hazten da ikusle kopurua», azaldu du Aranburuk.



Antonio Zavala eta Herri Literatura



Ekainak 14, 19:30 -Areto Nagusia-

«Antonio Zavala y la balada vasca. Algunos ejemplos»
Jesús Antonio Cid

«Impresiones sobre la biblioteca popular de Antonio Zavala»
Jésus Suárez

«Los sabios y nosotros»
Félix Marañón

Ekainak 15, 19:30 -Areto Nagusia-


«Antonio Zavala, ikertzaile»
Pello Esnal

«Ikasle berezi baten maisutza harrigarria»
Joxe Mari Aranalde

ANTTON VALVERDEekin kantaldia



Gipuzkoako Foru Alderdiak
Diputación Foral de Gipuzkoa



Pier Paul Berzaitz

Disko berria dagoeneko salgai

Pier Paul Berzaitz



Zuberotar kantaririk esanguratsuena